


1993ko martxo

Latzun

16. zenbakia

16

ELKARRIZKETA



JOXE AZURMENDI PENTSAMENDUAREN INDARRA

■ Amnistiaren Aldeko Batzordeen etorkizunaz. MIKEL KORTA.


■ Euskara, nazionalismoaren ahulezia historikoa. PRUDEN GARZIA

■ El Salvador: Bide propio eta iraultzaile
baten bila. ANTON MENDIZABAL.

ELKARRIZKETA

PATXI LARRION Argazkiak: AITOR BAYO

Bi hamarkada luze iragan dira «Hizkuntza Etnia eta Marxismo» liburua plazaratu zenetik. Hogei urte hauetan, Joxe Azurmendi, euskaraz idatzitako saiogintzan ezinbesteko erreferentzi puntua bihurtu da. Gaurko honetan, bere lanak izan



JOXE AZURMENDI

dira solasaldi honen testuingurua, elkarrizketaren mugarriak. Aberrigintza, kulturgintza, kooperatibismoa, ezker abertzalea, Mirande, Arana, Orixe; bat baino gehiagok lan eskerga dela pentsa dezake, ondoko orrialdetan erantzuna.

«ETA da gure azken historiak duen daturik inportanteena»

larrun Ongi baderitzozu zure liburuak, zure lanak, elkarrizketaren haria izango dira. *Etnia, Hizkuntza eta Marxismoa* zure lehenengo obra inportantea kontsidera daiteke. Asko izan dira liburu honek garai hartako ETaren ba-

rruko eztabaidetan eduki zuen eragina azpimarratu dutenak.

JOXE AZURMENDI. Liburu hau liburu gehiagorekin batera pentsatu zen. Arazo soziala, nazio arazoa, hizkuntza, mundu hauei buruz bilketa batzuk egiteko proiektua ze-

goen. Nik egin behar nituen nota solte batzuk, nazio eta hizkuntza arazoaz marxismoan, borradore gisa.


Esan beharra dago liburu horren egilea liburu gisa Txillardegia izan dela gero. Liburu hau polemikaren

«**I**zkuntza, etnia eta Marxismoa ez dago pentsatuta polemika konkretu batean alderdia hartzeko, gero ETaren barruko berehalako polemiketan parte hartu baldin bazuen ez dakit»

barruan bai, baina ez dago pentsatuta polemika konkretu batean alderdia hartzeko, beste lan batzuekin batera, irakurgai batzuk edo gogoe-tarako elementuak emateko baizik.

Liburua horrela egin zen eta gero ETaren barruko berehalako polemiketan parte hartu baldin bazuen ez dakit. Non ez nengoen behintzat, esan beharrez ez dago.

L. Orduko eztabaida edo polemika horietan *aurpegi gizatiarreko marxismoa* defenditzen zutenak nolabait galtzaile atera ziren. Zerk zaildu zuen bide hori aukeratzea?



«Ortodoxia marxista-leninista abertzale bat egon da: hau fenomeno intelektual bezala ez dut inoiz ondo ulertu, baina bakean utzi dut, bere koherentzia arazoetan berak harrapatuko zuela bere burua seguru egon naizelako».

J.A. Aurpegi gizatiarreko marxismoa defenditzen zutenak frakasatu egin zuten. Kontzeptu bat zen, baina ez zeukan programarik, beharbada eurokomunismoari gertatu zaion bezala gero. Beste aldetik, une hartan organizazio politikoek Errusia atzetik zeukatelako, eta baita ere mugimendu politiko batentzat modu doktrinarioan funtzionatzea errazago delako.

Ezker abertzaleko parte batean behintzat, horrela gertatu izan zen, beste marxismo edo leninismo erradikal, sektario batek irabazi zuen.

Ikusi da irtenbiderik badaukala baino katastrofikoak bakarrik, eta ekonomikoki baino, sozialki okerrago. Orain sozialista demokratiko 'betikoak' bihurtu direnak, garai batean nola komunista erradikalak eta puritanoak ziren, eta nola 'erreformistak' erridikulizatzen zituzten, burgestzat kritikatut: historia hori gogoratzen dudanean ez da penatu edo tristatzen nauela, lotsatu egiten nau, baina inoren lotsaz. Txaketerismoaren merkatu libre bat egon da hemen esan ezin hala-koa.

L. Eztabaida horiek, abertzaleak ere?

J.A. Nik ia beti aurrealdeko horiei begira idatzi dut, esate baterako Alderdi Komunistan zeudenei, eta ez oraingo Alderdi Komunistan. Jende asko zebilen orduko zeluletan, alderdietan

edo nolabait esan abertzaletasunari uko eginda internazionalismoa n edo ez dakit non sartuta.

Gero ortodoxia marxista-leninista abertzale bat egon da: hau fenomeno intelektual bezala ez dut inoiz ondo ulertu, baina bakean utzi dut arrazoi simple batengatik, bere koherentzia arazoetan berak harrapatuko zuela bere burua seguru egon naizelako.

Nik ez nuke abertzaletasunaren barruan dauden polemika hauetan, alderdi bat defendatu nahi inoiz. Ideia batzuk bai, neure ideiak. Gainera Marxismoleninismo edo ortodoxia moduko batean edo erradikalitasun batean zeuden abertzaleekin ez naiz sartu, horiekin mundu guztia sartzen zelako. Sozialki ere begiratu behar da zein ez dagoen kritikazterik nahiz eta ez zauden konforme berarekin.

Ez da ahaztu behar ortodoxia marxista leninistan izugarri jende jator asko egon dela hain zuzen ere bere idealismoak eta entrega totalak eramanda.

Senorito intelektual txarra, ezkerrean, zentroan edo eskubian egoteko liburuetan ikasten duena, hori ez da inon egoten, bere interesak eta bere egoismoa dagoen tokian kokatzen da. Beste batzuk aldiz, bihotzak eramanda, bere jarrera humano eta pertsonalak eramanda, leku batean, borroka batean egoten dira eta gero garatzen dituzte ahal dituzten eta ematen zaizkien ideiak eta ideia horiekin bere gizatasuna espresatzen du. Horrentzat ideiak instrumentu batzuk dira bere jarrerari nolabait artikulazioa emateko.

Berezi egin behar da, non gizon batek tresna bezala erabiltzen duen ideologia bat, hala alderantziz, non ideologia batek tresna bezala erabiltzen duen pertsona bat.

L. Zure obrarekin jarraituz, esan genezake, *PSOE, Arana eta Mirande eta kristautasuna* liburuek trilogia bat osatzen dutela, non demokrazia formalarekiko zure jarrera azaltzen den. Orduko ideiei horiek berdin balio al dute gaur egungo koiunturarako?

J.A. Imaginatu, egun, Hamburgon edo Bordelen bostehun preso politi-

ko dagoela. Nik aterako nukeen konklusioa: demokraziarik behintzat ez dago, ez dut zalantzarik ere egingo hortaz.

Hori bera Euskal Herriari aplikatzen diot eta esaten dut: demokraziarik behintzat ez dago. Egongò da zerbait, demokraziak dauzkan mekanismo batzuk, baina demokraziarik ez dago. Edo hobeto, demokraziaren kontzeptua ekibokoa bait da: hemen gehienez ere Espartako demokrazia dago: jende batzuk, proiektu batzuk, kanpoan geratzen dira, hilotak eta perioikoak. Alegia, muntatzen da joko bat, espazio batekin eta araudi batekin, zuretzat, niretzat eta bestearentzat. Beltzak, esaterako kanpoan uzten dira. Edo berdin zait palestinarrak Israelen, emakumeak Suitzan, eta abar. Eta esaten da gero: «Zatozte, joka zazute geurekin gure jokoak!» Baina jokoak jokoaren definizioan hasi behar zuen.

Indioak Etxe Zuriko presidentea hautatzera deitzea demokrazia ote da? Presidentegaiaren demokrazia bai, indioarena ez.


Demokraziak egin behar duen lehenengo gauza, demokrazia posible egitea da. Eta zeinek esan digu, urrats berdinekin egiten dela demokrazia posible hemen eta La Mantxan? Hemen jende batek non-bait pentsatu du demokrazia ere, diktadura bezala, kolpe batekin instalatu eta konponduta geratzen dela. Diktadura bai, baina demokrazia ez. Konstituzioarekin hasi bakarrik egiten da demokrazia bat. Hasi eta segitzeko balio ez badu, kanbiatu egin behar da, beste hasiera bat bilatu behar da.

Euskal Herrian demokrazia honi planteatzen zaion problema bat, negoziazioa da, eta hau behar beha-

rezkoa da. Baina ez ETaren arazoa soluzionatzeko, baizik demokraziaren arazoa soluzionatzeko, hau erradikalki esan beharra dago. Alegia, demokrazia fundatu, oinarritu eta justifikatu ahal izateko. Guztien jokorako espazioa eta araudia dela, denek onartu ahal izateko, negoziazioa behar da.

Betiko objezioa badakigu: gehien-goaren kontra gutxiengo batek txantaita egiten duela. Nik erantzungo diot, hemen oraindik txantaitarik ez dago, ez bait dago egoera demokratikorik. Kontua da batzuk eta besteak arau minimo batzuk onartzeko prest al dauden. Orduan ikusiko da zenbateraino batzuek eta besteek oinarri minimo hoiek definitzeko beren jarreretan eta proiektuetan amore eman lezaketen ala ez.

Demokrazia guretzat eginkizun bat da eta ez errealtate bat. Beste edozein erregimen bezala demokrazia tresna bat da, ez helburu bat. Eta guk daukagun historiarekin, edo tragediarekin, orain helburu eta egin-behar espezifiko batzuk dauzkagu. Horietarako egokitasuna da demokraziaren justifikazioa. Eta txan-



«Berezi egin behar da, non gizon batek tresna bezala erabiltzen duen ideologia bat, hala alderantziz, non ideologia batek tresna bezala erabiltzen duen pertsona bat».


taia bakarra, han egokia dena apika, hemen desegokia, Euskal Herriari inposatu nahi izatea.

L. Zure obran askotan azpimarratu egin duzu *euskaraz pentsatzearen garrantzia*. Ez du ematen abertzaileen artean euskaraz gehiegi pentsatu denik.

J.A. Euskaraz pentsatu da, esperientzia konkretu batetik pentsatu, euskarazko munduan inkarnatzen den esperientzia batetik pentsatu.

Azkeneko urteetan gutxitu egin zaigu euskaraz pentsatze hau eta gaztelaniaz pentsatzea handitu. Prozesu honetan ba daude oso gauza bitxi batzuk. Orain dela urte batzuk, gure belaunaldian, Francokumeok, beharrak eraginda, esforzu handi bat egin dugu euskarazko eta euskal kulturako esperientziatik mundua edo gure egoera pentsatzeko eta baita gure ingurukoak ere.

«**I** maginatu egun, Hamburgon edo Bordelen, bostehun preso politiko dagoela. Nik aterako nukeen konklusioa: demokraziarik behintzat ez dago, ez dut zalantzarik ere egingo hortaz»



«Abertzaletasunaren eremuan oraingoz gelditzen da gutxienez asmo bezala proiektu sozioekonomiko bat, eta proiektu politiko bat bateratzeko asmoa edo bokazioa; hori gabe abertzaletasuna edukin gabe gelditzen da».

Neure euskalduntasunak asko lagundu dit begi oso kritikoekin munduan ibiltzeko, Alemanian, Frantzian. Zailago identifikatzen nintzen osoki proiektu alemaniar edo italiar batekin eta haren puntu flakuak errazago ikusten nituen, kanpotik bezala nengoen beti.

Adibidez, Iruñean protestantea izateak edo Donostian lesbiana izateak edo Bilbon homosesualak izateak, pena asko dakar, baino intelektualki posibilitate asko irekitzen du, norbaitek asumitzen badu bere egoera, duintasunez asumitu, hau da, hauxe naiz eta naizen hontatik

ikusi eta juzgatu nahi dut mundua. Posibilitateak irekitzen ditu, irekia goa dauka mundua, inongo topikotatik ez dago atrapatuta.

L. Euskaldun baten egoera parekatzen duzu adibide horiekin?

J.A. Gure munduko egoeran, ez politikan bakarrik, gure balio eskematan ere, euskal kulturaren mundua erabaki ekologiko batez asumitzen den gauza bat da, baina ez errekek eraman zaitzala utziz, horrela ez da egiten euskal mundua, alderantziz. Baina mundua euskaratik pentsatzeko esfortzuarekin batera beste ahalegin handi bat egon da.

Gure garaian modernoa izan nahi handi bat zegoen eta garai horretan moderno izatea Parisetik inspirazioa ekartzea zen. Urte batzuetan, erreferentzia inportanteenak Parise eta kultura frantsesa izan dira.

Orain berriz inspirazioa bakarrik Madrilen bilatzen da eta gainera Madrilgo egunkari bat edo bitan, hau da, periodikoetan, ez liburuetan. Hau degradazio kulturalaren triunfoa da. Periodiko batzuk pulpitoak bihurtu dira, predikari jakin batzuekin, normalean filosofoak.

Gizarte modernoari gustu eman gona, kontzientzia lasaituko diona, terapia moral hori egingo dion predikadorea filosofiako irakaslea da, periodikoan igandeko sermoia igandero izkribatzen.

L. Egun, bere burua ezkerrean kokatzen duten alderdiek, ez al dute indefinizio maila izugarria bizi?

J.A. Momentu honetan ezkerrek dauka problema mundu guztian. Europa guztian garatu zituen kon-

«**E**uskal Herrian demokrazia honi planteatzen zaion problema bat negoziatzeko da. Baina ez ETaren arazoa soluzionatzeko, baizik demokraziaren arazoa soluzionatzeko»

tzeptu batzuk, ideia batzuk, eredu batzuk huts egin dutelako. Huts egite batzuek lehen ez zeukaten ondorio haundirik, baina orain, Sobiet Batasuna erori denean, Kubaren esanahia galdu denean, Nikaraguarena ere, eta Vietnam inork ez duenean gogoratu ere egiten, erreferentzia bai politikoak, utopikoak eta ideologikoak galdu diren momentu batean, birdefinizio baten bilaketa baino gehiago arazo ideologiko bat izan zitekeena, galdu egin du. Ideologiek ez daukate lehen zeukaten balioa, sozialki ere.

Orain programak irabazten du. Mundu berri baten gaude, non definizio ideologiko bat baino gehiago programatikoa eskatzen den eta definizio programatu batzuk nahitaez oso mugatuak dira.

Ezkerra une honetan mundu guztian galduta dago edo jadaneko ez dago ezkerrik. Horra PSOE. Aktik ez dakigu azkenean zer aterako den. Badirudi ezkerren diferentzia nagusiak abortoan, pornografian, dibortzio legean eta horietan ikusten direla. Kasu, nik ez diet arazo horiei garrantzia kendu nahi: bizitza pertsonalean oso garrantzizkoak dira. Ez dira, ordea, lehen esaten zen bezala, *sistema aldatzeko* apoiak, ezkerrek nahi zuen bezala.

Ezker omen honentzat honez gero ez dago auzitan sistema honen arazoizkotasuna eta printzipioen egokitasuna. Ni, berriz, egunero milaka ume-goseak hil beharraren arazoizkotasuna konprenitzera, ez naiz oraindik iristen. Ezkerra mundu honi alternatiba bat bilatzea zen. Eta hori da, ez dagoena, *ezkerra* izena daramaten erakunde ofizialetan.

Orduan ezkerretik zer gelditzen da: tradizio bat, planteamentu eta inspirazio batzuk eta problema moralo bat. Horrez gain, gune garrantzitsu bat gelditzen da eta egon daitezke edo PSOEren barruan edo erabat kanpo, edo ezker abertzalean, hau da, islote batzuk gelditzen dira. Ezkerrekin gertatu da bloke handi bat izatetik artxipielago bat izatera pasala dela.

«Proletargoak, burgesiarenkin, elkar hartzen du, izatekotan, baina

« **G**izarte modernoari gustu emango diona, kontzientzia lasaituko diona, terapia moral hori egingo dion predikadorea filosofiako irakaslea da, periodikoan igandeko sermoia igandero izkribatzen»

ez koinziditu». Zure liburu batetik hartutako zita da hau, harreman hori posible al da gaurregun?

J.A. Proletargoak edo langileriak egun ez dauka bere errepresentazio errealek sindikatuetan baino. Ez dauka errepresentazio politikorik. Alde horretatik burgesia eta proletargoaren elkartasun posiblearen arazoa ere kanpo ekonomikoan bakarrik planteatzen ari da une honetan. Eta oso gutxi. Arazo politikoren batetan egongo da beharbada, ez legislatzio laborean bakarrik baizik eskola arazoetan, punturen batzuetan egongo da, baina benetan oso maila minimoan egongo da.

Beldur naiz, oraingoan aurrikusi litekeen tamaina honetan behintzak, mugimendu langilean geroz eta langilea faktore ekonomiko eta sozial hutsago bihurtzera doala eta urte batzuetan horrela izango dela. Proiektu nazional edo kultural bat, proiektu politi-

ko bat, zer komunitate tipo politiko pentsatzen dugun edo hori, oraingoz behintzat sindikatuei ihes egiten dien arazo bat da. Ez da planteatzen ez European eta ez hemen. Beharbada hemen askoz ere gutxiago Frantzia edo Alemanian baino, bai beharra bai posibilitateak hemen handiagoak egon arren.



«Proletargoak eginkizun larria dauka bere fronte guztietan, lanpostuak ahal bada salbatu, emergentzia asko; sute batean gaude eta sute batean erabiltzen diren kontsiderazioak erabiltzen dira».

L. Abertzaletasunaren eremuan, nola ikusten duzu balizko hartue-
man hori?

J.A. Abertzaletasunaren eremuan oraingoz gelditzen da gutxienez as-
mo bezala proiektu sozioekonomiko
bat eta proiektu politiko bat batera-
tzeko asmoa edo bokazioa, hori gabe
abertzaletasuna edukin gabe geldi-
tzen da. Hau esaten dudanean aber-
tzaletasun tradizionala ere barnean
sartzen dut, ez neurri berdinean.

Une honetan egin daitezkeen
gauzak, gainean sare bat etorri bali-
tzaigu bezala gaude, eta esforzu
handi bat eginda mugimendu txiki
bat bakarrik lortzen da.

Gaurko egoeran, bai gobernutik
bai oposiziotik, burgesiarekin bat
egiteko arazorik ez dago, burgesiak
ez du inoren beharrik nahi duena
egiteko eta egiten du, beraz prole-
targoak eginkizun larria dauka bere
frente guztietan, lanpostuak ahal ba-
da salbatu, emergentzia asko; sute
batean gaude eta sute batean erabil-
tzen diren konsiderazioak erabiltzen
dira. Ixtanteari begirakoak.

L. 'Ezkerrak', oro har, ez du koope-
ratibismoa begi onez ikusi. Zuk,
aldiz, *El hombre cooperativo* libu-
ruan edota kooperatibismoari bu-
ruz idatzi dituzun lanetan aukera
hori defendatu egin duzu.

« **K**ooperatibismoa ez da arazo guztien
soluzioa, baina gutxienez kooperatibismoan
badago inspirazio antikapitalista erradikal bat;
langilearen, lanaren eta komunitatearen kontzeptu
osoago bat dauka ».

J.A. Kooperatibismoarekin dagoen
arazoa historikoa da. Hemeretziga-
rren mendean mugimendu soziala-
ren eta langile mugimenduaren tra-
gedia gertatu da Europan, hiru ada-
rretan garatu eta hiru adar hauek el-
karrekin konfliktoan sartu direnean:
alde batetik mugimendu kooperati-
bista, langileen arazoak kooperati-
bismoaren bidez konpondu nahi zi-
tuena; bigarrena lantegian langileen
interesak defendatu eta aurrera ate-
ra nahi zuena sindikalismo bidez;
eta hirugarren, langileen arazoak
konpondu nahi zituen politika bi-
dez, botere politikoa lortuz.

Europan alderdi politikoak eta
sindikatuak nahiko elkarri lotuak
egon dira, ezkerrekoak noski, eta
kooperatibismoa nahiko baztertua.
Toki batzuetan gehiago, beste ba-
tzuetan baino. Partidu politikoak eta
kooperatibismoa askoz lotuagoak

egondu dira lurralde eskandinabia-
rretan edo Ingalaterran; Frantzian
eta Alemanian alderdi eta sindika-
tuak askoz lotuagoak egon dira eta
Espainian ere bai tradizionalki.


Hirutan zatitua izate hau tragedia
bat da langileriaren historian. Koo-
peratibismoa hor begiratuta gelditu
da posibilitate ahul eta erreformista
bezala, besteen aldetik kritikatuena
bera izan da. Ikusita orain partidu
politiko laboralistek langileak nora
eraman gaituzten Europan, eta sin-
dikatuak non dauden, eta zein diren
beren posibilitateak, mereziko luke
kooperatibismoa posibilitate erreal
bezala berriro hartzea. Besteek
urrutiei ez gaituzte eraman.

Kooperatibismoa ez da arazo guz-
tien soluzioa, eta are gutxiago gaur-
ko koiunturan. Baina gutxienez
kooperatibismoan badago inspira-
zio, antikapitalista erradikal bat, ins-
pirazio bezala balio beharko ligu-
keena eta besteak baino osoagoa de-
na. Funtsean bai partiduetan inkarn-
atu zen pentsamendu ezkertiarra,
leninismoa edo maoismoa barne di-
rela, eta baita ere sindikalismoan
bertan inkarnatu dena baino filoso-
fia osoago bat dauka, langilearen eta
lanaren eta komunitatearen kon-
tzeptu osoago bat dauka.

L. Beraz, gure kasuan, kooperati-
bismoa krisi ekonomikoa gaindi-
tzeko posibilitate baino, tresna izan
daiteke.

J.A. Kooperatibismoa gizanaturan
dagoen gauza bat da. Euskal He-
rrian, daukagun historiarengatik,
sustrai tradizional oso inportateak
dauzka.

Arizmendiarrietak berak betida-
nik aitortu du euskal tradizioan ins-
piratu dela, ez bakarrik nekazari-
tzan, auzolan eta abar, kooperatibis-



«Inspirazio bila jende asko etortzen da. Beste gauza bat da ea asmatzen ahal
den Arrasatekoa ikusi eta Errusiako ekonomia birmoldatzeko modelo bat
desarrolatzeko».

mo sozialista historikoan ere, UGT inguruko kooperatibismoan, Eibarren kasu, edo ELAren doktrinan.

Une honetan ez dakit zein posibilitate dauden Euskal Herrian dagoen kooperatibismotik irtenbide batzuk potentziatzeko. Gorbachev berak ere Ekonomiako ministroa Arrasatera bidali zuen Errusia ekonomikoki birmoldatu nahi zuenean. Inspirazio bila jende asko etortzen da. Beste gauza bat da ea asmatzen ahal den Arrasatekoa ikusi eta Errusiako ekonomia birmoldatzeko modelo bat desailorratzen.

Gauza hauek oso zailak izaten dira eta beraiek jakin beharko dute soluzioa asmatzen. Inkusio askoz ere tamaina txikiagoan: esperimentatu ahal liteke, Arrasateko esperimentuaren potentziaketa baten bidez, Euskal Herrian bertan nolabait kooperatibismo indartsu bat egitea eta sozialki lana sortzeko responsable egitea.

Oraingoz dagoen sozialismo erreala bakarra eta bide posible bakarra badirudi hori dela. Bere alderdi negatibo askorekin, baina alderdi negatiboek ikaratzten duten borrokalari sozialak egin behar duena da lehen bait lehen jubilatatu.

Alderdi negatibo gabeko errealtate sozialak ez dira imaginatu behar. Horiek liburuko kontuak dira. Baina ez dugu inoiz ideala eta posiblea identifikatu behar gure errealtatearen analisisan. Hori da ezkerriari gehiegitan gertatu zaiona: utopia eta utopiaren eginkizuna programan sartu. Hori da egin behar ez dena: utopiak inspiratu egin behar du, baina ez programaren kapitulu bat bihurtu. Bestela absolutismoa eta tirania sortzen du.

L. Sindikatuak, Europako zenbait herritan, eginkizun kooperatiboetan sartzen direla ikusirik, nola

«**G**aurko egoeran, bai, gobernutik bai oposiziotik, burgesiarekin bat egiteko arazorik ez dago, burgesiak ez du inoren beharrik nahi duena egiteko eta egiten du»



«Esperimentatu ahal liteke, Arrasateko esperimentuaren potentziaketa baten bidez, Euskal Herrian bertan nolabait kooperatibismo indartsu bat egitea eta sozialki lana sortzeko responsablea egitea».

azaldu liteke gure inguruko sindikatuak kooperatibismoarekiko daukaten errezeloa?

J.A. Ezkerrean egon da identifikazio bat, merkatua berdin kapitalis-

moa. Hori abandonatu beharreko zerbait izango dugu, oraingoz behintzat, sindikatuak bai Danimarkan eta abar kooperatibismo orantzez joera bat baldin badaukate. Australian, oso gauza kuriosoa ari da gertatzen...

L. Konta ezazu gauza kurioso hori.

J.A. Arrasatera australiar bat etorri zen, ordurako nik argitaratua nuen *El hombre cooperativo*, eta harremanetan jarri ginen. Hauxe da kontua: bera Klaas Woldring, Management irakaslea Unibertsitatean eta Lismore-

«Alderdi negatiboek ikaratzen duten borrokalari sozialak egin behar duena da lehen bait lehen jubilatuz; alderdi negatibo gabeko errealitate sozialak ez dira imaginatu behar. Horiek liburuko kontuak dira»

ko Alderdi Laboristaren presidentea zen, eta kooperatibismoa ikustera zetorren.

Australia oso lurralde gaztea da. Orduan, fabrika bat montatzen dutenean, egiten dute erraldoi bat, zonalde industrial ikaragarriak, kapital izugarritzkoarekin European egon ez diren tamainakoak. Fabrika txikiak montatu nahi zituzten, kapita-

lismo erraldoiak uzten dituen hutsuneak betetzeko, kooperatibismoa bultzatu. Beraiek ez zeukaten oso garbi.

Kooperatibismo bat boteretik bertatik potentziatua, hori kooperatibismoa da edo delegazio sistema? Gizarteak ezin ditu asumitu eginkizun kaxkar hauek, orduan lagundu eta subentzionatuta montatzen dira gauzak: bere problema hori zen.

Kooperatibismoa Australiakoa bezalako ekonomia batean sortzen denean, gurea baino beste planteamendua da hori, hori ikusten da problema oso diferenteentzat izan litekeela soluzioa, hau da, industrigintza oso moderno eta handiko eta bestetik nekazaritza handiko gizarte batean, beraz, fabrika txikia bizi ezinean uzten duen gizarte batean. Baina fabrika txikia behar da, ez bakarrik lanpostuengatik, baizik zerbitzu pila bat, tailerrak eta horrelakoetan dihoalako.

Kooperatibismoaren arazoa Sobiet Batasunean planteatzen da ere, ordun beste zerbait da. Nola montatzen da orain arte estatala izan den ekonomia hori? Edo planteatzen liteke gure artean ere, lana falta delako edo etxeak falta direlako, ondasunak bai kontsumokoak bai produkziokoak, edo irakaskuntza kooperatibista, eskolak ere montatu izan bait dira.

Hemengo sindikatuek eta hemengo mugimendu sozial guztiek eta bere burua mugimendu sozial bezala duten alderdiek ere, berriro seriotan pentsatu beharko lukete kooperatibismoaren posibilitatea, garai bateko itxikeriak eta itsukeriak baztertuz.


L. Kooperatibismoak beldurra sortzen al du?

J.A. Konfrontazio bat egon da, ez-kerra askotan antikooperatibista izan da, marxismo-leninismoa k inspiratuta. Hori oso bitxia da, Marx ez bait zen antikooperatibista, eskeptikoa zen kooperatibismoaren posibilitatei buruz. Baina eskeptikoak izan arren, optimistak ere izateko nahiko arrazoi badauzkagu, Marxek berak garatu zituen modeloekiko askoz ere eskeptikoago bihurtu bait gara bitartean.

Beraz, denok oso eskeptizismo handi baten barruan, alegia utopiak ahaztuta baino errealismo batekin, hasieran puskatu zen batasun hartara, alegia kooperatibismoa, sindikalismoa eta borroka politikoa berriro batasun bat bezala pentsatzera, etorri beharra legoke.

Beldurra baino, orain estrainotzat hartzen dute kooperatibismoa, edo negatiboki, erreformista deitzen dute. Kooperatibismoa, azken finean, sozialismoa eta merkatu librea konbinatzeko saio bat da. Baina gehiago da hori baino: Arizmendiarrietak ulertu duen bezala behintzat, lantegia eta komunitatea bategiteko saioa da batez ere. Kooperatibista ez luke fabrikak bakarrik izan behar, baina herri osoak. Hori zen Arizmendiarrietaren ideia.

L. Gaiaz aldatuz, Mirande izan da zure obran beste konstante bat. Mirande autore modenortzat har al daiteke?



«Krisi batetik bakarrik izan da posible proiektu berri bat sortzea, ETArena izan den proiektua. Ez zen proiektu hau jaio gero ETA izan den gauza bezala eginda. ETA ere iritsi egin da ETA izatera».

J.A. Mirandek mundu errealarari kontramundu irreal bat eraiki dio. Hori egiteko erabili dituen baliapi-deak tradizio filosofiko batetik hartu ditu. Moderniaren kontrako filosofia batetik. Baina Mirandek jakin du tradizio filosofiko horri espresio poetiko izugarri polita ematen. Beraz, literatur baliapideen gisa Mirande modernoa da, bestela ez.

Azken finean haren literatura betetzen duen mundua filosofikoa da. Orain dela gutxi Aldekoak idatzi du *Egunkarian* filosofikoki ez duela garrantzirik. Zur eta lur gelditu naiz eta ez dakit nola ulertuko duen, gustatuko litzaidake arrazoituko balu.

L. Arrotza, tragikoa, eta Mirande eta kristautasuna zure liburuan irakur daitekenez ETArek aitzindari.

J.A. Euskal Herria balore etiko eta moral mailan, puskatzen ari da gerarekin. Erlijioa eta katolizismoa egon da jokoan, bai reketen aldetik bai abertzale kristau demokraten aldetik. Bi fronteetan erlijioa zegoen. Kontzientziaren kapituluari nago-ki, noski.

Esperientzia hori puskatzen ari da, gutxienez kontzientzia abertzalea dutenen artean. Nafar reketek alderantziz, une batez triunfalismo terrible bat bizitu zuten, baina beste katolizismo derrotatuak derrota beltza jasan behar izan du.

Krisi honen lekukoak toki askotan daude. Orixek berak aitortzen du bere *Quito-n arrebarekin* liburuan, edo Salvatore Mitxelenaren obran. Balio sistema katolikoa, tradizionala, puskatzen ari da. Puskatzearen gogoetan bat egin duten autoreak dira, nolabait ETArek aurretiazko gogoeta mailan. Horren lekuko Txillardegiren nobela hartu daiteke. Baina Mirande da askogatik inportantea.

Balio sistema tradizionalaren kontserbatore demokristau katolikoa uko erradikalena egiten dio, ez bakarrik indargintza edo biolentziaren kontuan, baizik erabat norberatasunaren, indibiduoaren kontzeptuan, komunitatearen kontzeptuan, historiaren balorazioan, euskararen.

Inore ez dago Mirande bezain osoki krisiaren barruan. Posizio bat hartuta dauka eta ez da posizio progresista bat, baina bai krisiaren posizio bat. Une horretan, Krutwig eta Txillardegik baino askoz erredikalkiago, Mirandek eman du krisiaren espresioa. Ez da krisiaren espresio soziologiko bat, pentsamendu bat baizik.

Krisiaren agerpen den pentsamendu bat edukiz, alde horretatik da niretzat Mirande ETArek aurretiazko bat, ez Mirandek egin duen gogoetak bide ematen duelako ETArek pasatzeko, nahiz eta posibilitate hori ere haren obran egon bada goen seguruenik, «Gudu-zalduntzaren» ideiarekin, baizik eta krisiaren agerpen gisa.

Krisi batetik bakarrik izan da posible proiektu berri bat sortzea, ETArek izan den proiektua. Ez zen proiektu hau jaio gero ETA izan den gauza bezala eginda. ETA ere iritsi egin da ETA izatera.

Beraz prozesu horren hasieretan baldintza ahalgarri bezala ulertuz da Mirande ETArek aurretiazko bat bezala baloratzea. Badakit beste batzuek honela moduzko arrazoiak Mirande demonizatze edo gazte-ria erradikal abertzalearen faxismoa ebidentzian jartzeko, erabiltzen dituztela, baina kuida asko gabe naukate sinplekeria horiek: justu ETArekin harremanean bakarrik ulertu nahi baldin bada, gauza murritzeta eta pobretzea da. Mirande ETArek aurretiazko izan bada, nirea ere bai, edo Arestirena ere bai.

Euskal Herria dena *en bloque* Mirande ondorengo gizarte bat da, krisi ondoko gizarte bat da, eta alde horretatik ez bakarrik ETArek. Baina, haren kontra egon ala ez, Euskal Herrian krisiak eman duen produk-turik indartsuena eta erabakiorrena ETA da. Herri honek bere azkeneko historian eman duen daturik inportantea. Eta horrekin definitu behar du bere burua, gure etorkizun gehiena askogatik kondizionatzen duena ETA bait da, kulturalki ere.

L. Miranderen figura erreku-peratu eta gero, zer?

J.A. Mirande garai batean konde-



«**I**nor ez dago Mirande bezain osoki krisiaren barruan; une horretan, Krutwig eta Txillardegik baino askoz erredikalkiago, Mirandek eman du krisiaren espresioa»

natuta egon zen eta orduan bazirudien Miranderi buruz idaztea, Mirande kondenatu gabe, hau da normal xamar idaztea, Mirande errebindikatzea zela. Orduan gu izango ginen Miranderen defentsak, erreku-peratu genuenak.

Beraz lehenago kondenatu zen, gero errebindikatu eta orain badago beste joera bat: errebindikatu dugunez baliogabetu egin omen dugu, Euskal Herri oso polit bat egin omen dugu, orain badaukagu heretiko bat, azkenean besteak bezalakoxeak gara. Zer egin dugu Miranderekin? Besteak bezalakoa bihurtu. Ordun berriro ere bere espoleta kendu egin diogu. Hori dialektika aspergarri samarra da niretzat. Kiribiloaren ki-



«Kontu egiten badugu, gure kontzientzi abiapuntuan dauden autoreak, **Campion bat, Arana Goiri bat edo Xaho eta Josep Garat** lehenago, erdaraz lan egin dute eta guztiz onartzen ditugu».

ribiloa. Besteak bezalakoak garela baldin bada atera dugun ondorioa, nondik ondoriatu den ez dakigun ondorio borta aparte horrek bi sentidu eduki ditzake: bat, erdipurdikierian salbatu garela, arras antimirandeanoa litzateke hori; eta bi, problema hori, daukanarentzat utz genezakeela, hau da, ez daukala bat ere sentidurik besteak bezalakoxeak izan nahita ibiltzeak, inozoa da hori, azken finean garen bezalakoak bait gara, baina ergelkeria dela besteak bezalakoak ez izan nahita ibiltzea

ere. Miranderekin dagoen arazoa da, nik uste, arazo hori ez edukitzea. Beste arazo asko bezala.

L. Zure liburuetan, euskarareriko hiru jarrera definitzen duzu, laburbilduz, alde, kontra eta enpatikoa. Azken hau, euskaldun ez den baina euskaren alde dagoen gehiengo zabal batena helburutzat hartua izan da azken hilabete hauetan zenbait adituk egindako adierazpenetan. Hori al da kulturgintza batean lehen mailako helburua?

J.A. Euskal Herria historikoki, so-

«**E**uskarak momentu honetan daukan arrisku handi bat oso demokratikoki saldua izatekoa da»

ziologikoki eta kulturalki ere herri desintegratu bat da izan da, administrazio mailan ere.

Vascongadas terminoak jende bati molestatu egiten dio, baina hau Vascongadas da eta historikoki hori ulertu izan da. Ni termino hori erabiltzearen alde nago, molestoa bada ere, gutxienez gure deskonformitatearen seinale gisa, helburua zein dugun inoiz ez kontzientzia galtzeko.

Geure erreferentzi sistema kultural eta moraletan ere desintegratuta gaude. Desintegrazio elementu honen gain badago ere integrazio borrontate bat. Teoriaz behintzat, Tuterakoak eta Karrantzakoak edo Goierrikoak eta Txorierrikoak nahi dugu berriro ere nolabait komunitate batean elkartu eta horretarako bideak egin edo martxan jarri.

Integrazioa ez da posible integratu nahi duten guztiek zereginen bat eduki gabe, alde horretatik vascoak edo euskoak ere parte hartu behar dute berdin berdin. Integrazio borrontate batean literatura egiteak badauka eginkizun bat herrigintza delako, baina kirolak eduki lezake eta folkloreak ere badauka. Aldiz negatiboa da herrigintza folklorearekin identifikatzea, edo arrazarekin, edo euskararekin bakarrik ere. Euskara, ordea, ez dut uko egiteko paradan ere folklorearen edo arrazaren maila berean ulertuko.

Bigarren multzo hori, sinpatia sentitzen dutenak baina nolabait historikoki kastigatuagoak geratu diren lurralde erdaldunduen ahalegina, erabat beharrezkotzat jotzen dut.

Begira, *Jakinek*, eta beraz nik ere, beti defendatu dugu euskara salbatzeko, alegia komunitate errealki

euskaldun bat birregiteko, bi frontetan dagoela ahalegindu beharra: bat da euskaltzalegoa bere barruan kohesionatua, indartu, bloke efikaz bat bihurtu; baina gero, espansiorako, behar da baita kulturako mundu guztia kohesionatu eta aprobetxatu euskararen alde, artistak, musikoak, literatoak, kirolariak eta ahal diren guztiak. Eta oraindik burutik sano dauden politikoak edozein alderditan.

Euskara eta Euskal Herria aurrera ateratzeko euskararen babes bat aurkitu behar da, erdaraz eusko kultura egiten duten autoreengan ere, eta autoreak esaten dudanean esan nahi dut elkarte edo nahi den hiritar guztien ere.

Kontu egiten badugu, gure kontzientzi abiapuntuan dauden autoreak, Campion bat, Arana Goiri bat edo Xaho eta Josep Garat lehenago, erdaraz lan egin dute eta guztiz onartzen ditugu. Hau euskal kontzientzia tradizionala da. Beharbada orain egon diren txoke batzuen ondoren, batzuek deskubritu egin dute, baina historikoki hau abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren jarraera tradizional bat izan da.

L. Erdal Herriak bala dauka homogeneitate?

J.A. Erdal Herriak berak eduki gabeko homogeneitatea badauka, Estatuak ematen diona, kultura espainiarraren historiak ematen diona, homogeneitate espainola, baina ez dauka Euskal Herri bezala homogeneitate bat. Eskubide mailan badago hau planteatzea, baina ez dago soluzionatzerik. Tontakeria bada ere, nik eskubidea daukat Aitzgorriko mendia bazkalatzeko eta egunero harri puska bat jateko. Erokeria bat izango da, baina eskubideak badauzkat. Adibide hau apropos jartzen dut: eskubideak ez direlako bide bat markatzeko, defentsa bat markatzeko baizik.

Euskal Herriaren soluzioa, inoren eskubideak mesprezatu gabe, guztiontzat baliozko proiektu bat egitetik



«Gure munduko egoeran, euskal kulturaren mundua erabaki ekologiko batez asumitzen den gauza bat da, baina ez errekek eraman zaitzala utziz, horrela ez da egiten euskal mundua, alderantziz».

dator. Komunitate bat bezala nola integratu eta borondate bat garatu. Erdal komunitate batean integratu nahi baldin badugu, euskara utziz, provincias del norte bihurtu, oso erraza da hori. Hori posibilitate bat da, eta badirudi batzuen dinamika ikusita horretara joan nahi dutela, nahiz eta hori ez esan. Hori ez da Euskal Herria baten proiektua. Hori da probintzia espainol baten proiektua, inkultura eta basakeriaren proiektua da, kulturalki dagoen errealitate eder-eder bat txikitzen duena.

gero ez du nahi askotan.

Nafar askok Euskal Herriarekin daukan lotura ez da kontzientea. Erriberri- Oiteko nafarrak galdetu beharko du, ea zein den leitzarrarekin duen komunitatea. Berak nafar bezala definitzen du bere burua, baina galdetu beharko zaio ea seigarren merinaldea ez den Nafarroa, ea muga ipini duen horrek zer Nafarroari ipini dion muga. Nafarroa kontsideratzen du Nafarroa espainola eta gainera momentu honetako probintzia. Errioxa, ez. Eta Nafarroako Erregeak Najaran dautza.

«**K**ontzientzi mailan desintegrazioaren efektu guztiak daude, desintegrazioa egiazki kontzientzietan hasten da; Euskal Herriaren birregintzak ere kontzientziatik hasi beharko du»

Kontzientzi mailan desintegrazioaren efektu guztiak daude, beraz gure kontzientzia ere problematikoa da. Identifikazio problemak ez dira Nafarroan bakarrik ematen,


Nik aldebrez daukat posibilitatea, puskatuta dagoen komunitate bat berintegratu Euskal Herri historikoaren inguruan, Nafarroaren, Baskoien, Euskararen eta nahi duzun historia kultural horren inguruan. Hau posibilitate eta eskubidea da ere. Hori izango litzateke Euskal Herri baten proiektua, bestea ez bezala. Herri honen gehiengo handia gainera honen alde dago. Arazoa ez da halere hauteskundeetako herri honen borondatea, herri honen kontzientzia bera ere manipulazio bidez, askotan oso nahastuta dagoela baizik. Nahi du eta

Gipuzkoan edo Bizkaian ere badaude. Desintegrazioa egiazki kontzientzietan hasten da. Euskal Herriaren birregintzak ere kontzientziatik hasi beharko du.

L. Beste askoren iritziz, etorkinak integratu baino gu integratzen ari gara, eta hainbat adibide jartzen dira, adibide politikoak, sozialak eta abar.

J.A. Etorkinaren kontzeptua geroz eta balio gutxiagokoa gertatzen ari da, zeren, azken finean, etorkinak etorri zirenetik zenbat eta urte gehiago pasa, bertakoagoak diren.

«Nahi bada herri honek orain arteko identitate marka guztiei uko egin eta probintzia espainiar bezala integratzea, eta bildur naiz politiko batzuk bide horretatik doazela, ordun, eroso sentitzeko aitzakiarekin, aitaren etxe famatu hori oso prezio baxuan ari dira saltzen».



Alemanian, gizarte alemana oso egituratua dago, integratua dago eta asimilazio kapazitate handi bat badauka, guk ez daukaguna. Ordun guri hemen planteatzen zaigun arazoa da haiek eta guk batera nola proiektu hori bideratu aurrerantz.

Denon artean proiektu bat egitea, baina proiektu hori komunitate baten proiektua izan dadila. Konfrontazioarena baldin bada, konfrontazioa edukiko dugu. Baina baldin bada baita ere herri honek orain arteko identitate marka guztiei uko egin eta probintzia espainiar bezala integratzea, eta bildur naiz politiko batzuk bide horretatik doazela, orduan komunitate hau puskatzen, hiltzen ari dira, probintzia espainiar bat gartzten ari dira, eta eroso sentitzeko aitzakiarekin, aitaren etxe famatu hori

oso prezio baxuan ari dira saltzen.

L. Ikastolen mugimenduari n gerta daitekena, hori ez al da integrazioa?

J.A. Bigarren hizkuntza bat ezagutzea instrumentu bat edukitzea da, baina hori ez da integratua egotea. Ni ez naiz latino edo alemana, latin edo alemaniera dakidalako, ez nago komunitate alemaniarrean integratua. Kultura alemanaz baliatuko naiz, baina euskaldun gisa, eta euskaldun komunitatean daukadan tokitik.

Administrazioan norbait gerta liteke, ikasi behar izan duelako ikasi euskara, eta hala ere arrotz gelditu. Hori prozesu batean ikusiz gero itzultzeinezko pausuak izan litezke.

Baina ikusten ari gara ere, euskaraz ez dakiten gurasoak ume eus-

kaldunak ateratzen ari direla. Ume hauek ez daude beren aitaren mailan integrazio prozesu batean, behar bada kotzientzia eta borondate gehiago zituen aitak umeak baino, eta halere umea posizio askoz hobean dago herrigintza proiektuan. Arriskua txikiak beti dauka. Eta ez integratua izateko, irentsia izateko baizik.

Euskarak momentu honetan daukan arrisku handi bat oso demokratikoki saldua izatekoa da.

L. Zure hitzak dira, «kulturgintzak bakarrik esan dezake non eta nola bildu».

J.A. Kulturgintzak proiektu kultural batean elkartuko gaitu. Euskal Herria ez du egiten bere administrazioak edo bere proiektu ekonomikoak. Hori guztia beharko du, baina non elkartuko garen, hori proiektu kultural batean izan beharko du nahitaez.

Beharbada gaur proiektu ekonomikoak eskatzen du Akitaniarekin batera hemen eskualde ekonomiko bat sortzea eta eskualde horretako parte batek frantsesa edo gaskoinera erabiliko du eta beste parte batek euskara erabiltzen badu hobeto, bai-

«**E**uskal Herria ez du egiten bere administrazioak edo bere proiektu ekonomikoak; hori guztia beharko du, baina non elkartuko garen, hori proiektu kultural batean izan beharko du nahitaez»

«**E**usko Jaurilaritzan, politika kulturala, izkutuan bezala diseinatu dute; askotan esan dut hemen klandestinoa Eusko Jaurilaritza dela, ETA baino askoz ere klandestinoagoa»

na ez da komunitate kultural bat izango, eskualde ekonomiko elkartu bat baizik.

Momentu honetan ez litzateke txarra izango hori gutxienez egotea, baina administrazio bat edukita ere ez dago aseguraturuta Euskal Herria oraindik. Eduki genezake errepublika bat nazio bat eduki gabe eta hori ez da neri interesatzen zaidan soluzioa. Izan daiteke tresna, beharrezkoa edo inportantea, baina ez soluzio bakarra. Ni nahiko apolitikoa naiz, ikusten denez.

L. Arestian, gerra osteko krisi garaia aipatu duzu, krisi garai horietan, kulturegintzan, zerbaitetan asmatu al dugu? Zer ondorio atera daitezke urte horietako ihardunaz?

J.A. Gerra aurreko eta gerra ondoko euskaldunen kontzientzi maila konparatzen badugu, irabazi duguna hizkuntzak ezagutu izatean dago, lehen ematen zitzaion baino inportantzia askoz ere handiagoa duela.

Bigarrenaz kulturegintzan ere deskubritu dugu, herri baten kultura ez direla bakarrik bere folklorea, bere ohitura zaharrak, baizik eta Oteiza, arte modernoa, literatura modernoa eta musika. Hau da, kulturaren konzeptu dinamikoa eta orokorrago bat garatu dugu eta ez arkaizante bat.

Alde honetatik gure kulturaren konzeptua ez da bakarrik halako angustia defentsibo batetik egin den




«Garaikoetxearen garaietatik hasita eta gero etorri den EAJ-PSOE gobernuarekin gaur arte, gaurko eta horko kultura jendearekin sistema autoritario inpositibo eta ez elkarriketatzaile bat egon da».

konzeptu murailatu bat. Konzeptu normal bat da, mundu guztiak daukan; kulturaren beraren konzeptu bat daukagu eta hori kontzientzia mailan oso positiboa da.

Hirugarrenaz oso positiboa izan da, baldintza batzuegatik belau-naldi berriak bloke bezala operatu izan duela urte askotan, ez konfliktorik gabe, euskara batuaren ara-

zoan izan dira konfliktuak, baina gutxienez euskarazko kulturegintzan eta baita ere euskal kulturegintzan lotura handi bat egon da.

Mitxelena, Oteiza, Barandiaran, Txillida, Ibarrola, Aresti, edota euskal musikako autoreak Eskudero-rengandik hasita, batasun handia eduki duen mundu bat izan da. Ez dut idealizatu nahi, baina batasun



«Intelektual batek, busti nahi ez duenean, egiten du: 'Guk kritikatzan dugu euskal nazionalismoa, atzeratua delako eta abar', lerroak eta lerroak, eta artikulua bukaeran esaten du 'honek balio du nazionalismo espainiolarentzat ere'».

handi bat egon da, elkarren ezagutze eta laguntze bat, eta hori galdu dugu.

Berriro arrotzago gara elkarri, kulturako gizonak, musikakoak, euskaragintzakoak, pinturakoak, berriro elkarrenganako arrotzu eta urrundu egin gara eta euskararen beraren barruan eten oso nabarmen

go ziren berak; askoz okerrago zeuden gauzak. Gauzak orain hobeto daudelako dira posible miseria berri batzuk ere, eta lehengoez gain eten berriak, politikariak eta alderdikiak terreno guztiak inbaditu dituela. **L. Zure hitzetatik uler daitekenez, kulturgintzaren alorrean eten batzuk eman dira. Eten horiek azaltze-**

batzuk probokatu dira. Galera handiak, nekez konpontzekoak.

L. Beraz «Francoren kontra hobeki geunden»?

J.A. Eskertzen dizut probokazio txiki hori. Orain jende askori entzuten zaio topiko hori, jostetan bada ere. Jostetan ere niri batere graziaz ez dit egiten. Egia da, zailtasunen orduan, familian norbait gaixo dagoenean bezala, solidaretasuna eta bestetan ez bezalako dohain eder asko erakusten da. Baina miseria oso humano franko ere bai, ez uste.

Francoren kontra ez geunden batere ondo. Agian batzuk, seguru orain ere ez daudela gaizki, hobeto egongo

ko arrazoi bat baino gehiago egon da.

J.A. Garaikoetxearen garaietatik hasita eta gero etorri den EAJ-PSOE gobernuarekin gaur arte, gaurko eta horko kultura jendearekin sistema autoritario inpositibo eta ez elkarriketatzaile bat egon da, Beren politika kulturala ezkutuan bezala diseinatu dute.

Askotan esan dut hemen klandestino Eusko Jaurlaritza dela, ETA baino askoz ere klandestinoagoa. Zegoen jendearekin, zeuden proiektuekin aurrera jarraitu ordez, beren proiektuak egin dituzte eta hor edo zakuan sartzen zinen hala ez.

Hori izan da hemengo politika nagusia hasiera hasieratik. Horrek berak probokatzen ditu etenak. Politikak politikan ere sortu ditu, baina politikaz gain kulturean sortu ditu batere beharrik ez zeuden arazoak eta etenak.

Beharbada ez da komeni hontatik jarraitzea, esaten den hitz bakoitzak ere eten gehiago sortzen bait du. Momentu honetan hau pozoin bezalako gardu eremu bat da.

L. Beste alderdiek, oposizioan daudenak, ezker abertzalea kasu, baina al dute kultur programarik?

J.A. Oso arrunta da periodismoan, baina permitituko didazu galdera edo objektu horrengatik protestatzea. Galdera batek ez dauka inoiz zentzu berdina agintean dagoen bati buruz eginda edo oposizioan dagoen bati buruz.

Agintean dagoenak, medio batzuk, gure diru publiko batzuk dauzkalako, programa garbi bat edukitzeko obligazio osoa dauka. Bestela tranposo bat eta lapur bat da. Har ditzagun seriotan guk bederen, nahiz beraiek ez, erantzun behar politikoa.

Oposizioan dagoenak ez dauka programa bat edukitzeko obligaziorik, ez zaio hortarako ordaintzen eta ez zaio hortarako mediorik ere eskuetan jartzen. Eskatzen zaiona da ideia batzuk, baina ez programa bat. Eta gero agintearen kontrola.

Oposizioan daudenek, HB, EA edo dena delakoak, programa bat

«**B**ere buruarekin konflikto bat daukanarentzat idazten dut, bere buruarekin identifikatzeko problema batzuk dauzkanarentzat, bai euskaldun bezala, bai pertsona bezala, horrentzat nahi nuke askatasun piska bat irabazi»

«**O**bligazioa zeinek dauka, zein dago erantzukizunak ondorio guztiekin hartuta bere argu? Oposizioaren ideiak ideiak dira; gobernuaren ideiak, aurrekontuak»

zentzu honetan espero dut ez edukitzea, alperrik edukiko lukete. Programaren arazoa ez da inoiz berdin planteatzen agintzeko edo oposizioa praktikatzeko.


L. HBren kasuan, Estatutuaren zirrriborro kaleratu eta eztabaidatu zuenean, ez ote zuen kultur proiektu bat definitu? Ez al zen tranpa horretan erori?

J.A. Egin behar da, baina beste balio bat dauka. Partidu batek hori egin behar du, baina hori da autodefinizioarako eta autokontzientziarako egiten duen esfortzu bat, ez da gobernuko programa bat.

Hemengo demokraziaren truko bat da: informazioa ematen denean, berdintzen dira zerikusirik ez daukaten elementuak. Intelektualen defektu bat da eta horregatik naiz piska bat alergikoa.

Intelektual batek, busti nahi ez duenean, egiten du: guk kritikatzeko euskal nazionalismoa, atzeratua delako eta abar, lerroak eta lerroak, eta artikulua bukaeran esaten du: «honek balio du nazionalismo espainiolarentzat ere». Ez jauna, ez du balio: zu ari zara aurrena euskal nazionalismoa kritikatzeko eta *de paso* zure burua salbatzen. Hori deshonekoa da intelektualki.

Deshonestasun hori dago kasik ezarrita gure demokrazietan, esaten denean, gobernuan gaizki egiten dute, baina oposizioan ez daukate ideia hoberik. Obligazioa zeinek dauka, zein dago erantzukizunak ondorio guztiekin hartuta bere kar-



«Liburu honekin ez nuke inori armak eman nahi beste baten kontra, baizik eta bere buruaren kontra armak eman, aska dadin eta ikus dezan 'begira zer historia txarra daukagun' eta asumitu egiten dugu».

gu? Oposizioaren ideiak ideiak dira; Gobernuaren ideiak, aurrekontuak.

L. Antza denez, *Espainolak eta euskaldunak* liburuak espero ez zenuen oihartzuna eduki du. Zergatik izenburu hori? Frantsesak ere antzeta azaltzen bait dira liburuan zehar?

J.A. Titulu horrek nahastu besterik ez zuen egingo, Frantziako datu asko ematen dira, horrez gain, egia da liburu hau hegøeuskaldunek eta espainolek dakarten giro polemiko batean sortu zela. Polemika modu hori nik ez dut uste iparreuskaldunei berdin sortu zaienik. Beste historia bat egin dute. Ez oso alai, baina diferentea eta batez ere polemika apologetikoa eta antiapologetikoa ez dute guk bezala eraman.

L. Harira bueltatuz, garai batean arrunt erraza omen zen euskaraz idatzitako edozein saikera mota argitatzera. Gaur, aldiz, ia ezinezkoa suertatzen da. Beraz, zer dela eta liburu honen arrakasta? Gogoetara-

ko baino, liburua, ez al da tresna moduan erabiltzen?


J.A. Ezer baino lehen eskerrona aitortu behar diot Xabier Mendigureni. Badirudi liburuak ezohizko irteera ona duela orain, baina bai argitalpena eta bai arrakasta berari zor zaio lehenengo. Fiasco ekonomiko baten arriskua Elkarrek beregain hartzeko lagunak konbentzitu, behar zuen momentu eta modu justuan atera, liburuaren laburpen perfektua den azala asmatu, propaganda ondo egin, berak zabaldu dio liburuari jendartea. Elkarri eskertu beharrean nago bi urtetan segidan bisaio liburu publikatzea, bestela ezin bait nituen publikatu, egia esateko.

Liburu hau, *Gizona abere hutsa* da eta *Gizabereen bakeak eta gertak* beharbada irakurle atentu batek elkarkusia badutela somatuko du. *Gizona* aberearen gogoetak norbakoitza askatu nahi du hain zuzen ere kate pertsonal, moral, izpiritual hauetatik. Askatasun bat lortu nahi nuke

pertsonarentzat. Izan dadila animalitxo normal bat, bera den bezalakoa. Ez dadila ikaratu mixeria batzuk dauzkalako. Eta liburu honekin ere gauza bera, baina komunitate mailan.

Gure historia nahiko kalamitosa da eta alde askotatik negargarria eta parregarria, baina besteen modukoa. Ez nuke inori honekin armak eman nahi beste baten kontra, baizik, eta bere buruaren kontra armak eman, aska dadin eta ikusi dezan «begira zer historia txarra dauka-gun» eta asumitu egiten dugu.

Agian batzuk maite dute Euskal Herria esanez, hau ikaragarri ona da eta ez dago gu bezalakorik. Nik holako pertsona bati afari on bat jarriko nioke eta izan dadila zoriontsu. Bere buruarekin konflikto bat daukana-rentzat idazten dut, bere buruarekin identifikatzeko problema batzuk dauzkanarentzat, eta hori bai euskaldun bezala eta bai pertsona bezala, eta horrentzat nahi nuke askatasun piska bat irabazi. Eta gainera



«Iragana ez da manipulatzeko eta ez da aprobetxatu ere egiten. Gogoetarako bakarrik, elkarrizketarako elementu inportante bat izan beharko luke».

pentsatuz, barruan libereki piska bat irabazten denean, mundu hau euskaldun batentzat oso polita dela. Harrokeria gabe maitagarria.

L. Agian errepikatzen noa, baina sintomatikoa da nola jendea argumentuen bila hurbiltzen dela liburura, balizko eztabaida batean erabiliko dituen armen bila.

J.A. Hori izan liteke arma bat ere arrazoi bategatik, gure memoria historikoaren errekonstruzio bat egin liteke ere alde batetik, mundua euskaraz pentsatu esaten dudanean edo mundua gure esperientziatik pentsatu.

Guri euskaldunoi gertatu zaigun gauza bat da, guk geure historia ere besteek kontatua ezagutzen dugula eta gure kontrarioek, batzuetan inkusio karinoz edo errukiz, holako sentimendu arraro batekin, baina beti ere beren medioetatik. Eta beharbada ordua da esateko «aizue, zuek gure historiaren ridikulu guztiak kontatzen dituzue eta gainera faltsez kontatzen dituzue», edozein historiari kontextua kentzen zaio-nean faltsez egiten bait da.

Euskal Herrian egon diren ipuin batzuk, Tubal eta abar, kontatzen badira gure gauza espezifiko bezala, gezurra kontatzen da; euskaldunak hori esan badu, besteak ere horrelaxe arrazoiatzen zuen momentuan, eta beraz bere kontzientziaren espresio bat aurkitu du, une horretan, bere kulturak ematen zizkion tresnekin. Hori denek horrelaxe egiten dute eta hori ez egitea gizatiarra ez izatea izanen litzateke, edo aingeru edo supergizon, eta hemen gizontxotatik pasatzen denik gutxi dago.

Liburua giro polemikoan dago idatzia, liburua ez dago nazkagabe idatzita, benetan nazkatuta nengoelako eta hainbeste aldiz lelo berdinak entzunda nengoelako, inkusio euskaldunei. Euskal historiaren faltseztaileak ez dira abertzale batzuk bakarrik izan, mitoak sortu dituztela-

«**E**rnazimentuan, sozialki eta kulturalki garatzeko bide batzuk bazeudenean, Europako ideia berriak guganaino helduak zirenean, politikoki deskalabru batean sartu gara»

ko, baizik eta mitokritikoez ere berdin faltsez dute askotan.

L. Abertzaletasuna, nazionalismoaren kontzeptu modernoari dagokionez, aski berria da guregan, beti ere, kontzientzia nazionalak historian zehar une diferenteak ezagutu ditu?

J.A. Mendebaldeko historian gaude. Mila urte Erdi Aro eduki du Europak. Hau da, inperio erromatarra puskatu eta 'barbaroak' sartu dira Europan. Eta Europa hasten da hondamendi artean estruktura berri bat muntatzen. Horrek, mila urte irautea du.

Ordun hasten dira hor sortu diren komunitate berri hauek, monarkia- ren inguruan normalean (ez beti: hor daude Italiako hiri-errepublikak) politikoki antolatzen.

Kulturaren indarberritze bat hasten da, gero, Ernazimentuan, Moderniaren atarian, komunitate politiko eta kultural hauen beren kontzientzia espresatze bat, eta hori egin ahal izateko medioak grekorromanoak dira. Alde horretatik besteak bezalakoa gara, guk ere medio grekorromanoekin espresatu dugu gure identitatea, gure nortasun sozial eta politikoa.

Baina guk hondamendi bat eduki genuen momentu horretan. Sozialki eta kulturalki garatzeko bide batzuk bazeudenean, Europako ideia berriak guganaino helduak zirenean, euskaldunon berdintasuna eta abar, ideia hauek garatzen ari ziren unean, politikoki deskalabru batean sartu

gara: Nafarroako erresuma Gaztelak puskatuta, Vascongadoak Ameriketako deskubrimentu, konkista, erosketaren eta hustiaketaen karreran sartu dira. Barruan estruktura bat politikoki hezurmamitu beharrez, kanporantz isuri eta dispersio karrera bat hasi dute. Hori izan da gure historia.

Kultura grekorromano horretan, Ernazimentuan hasten den kultura horretan, elementu desberdin asko daude. Elementu horiek tentsio batean badaude, alde bat boterea, indarra, harrokeria da. Horixe da Europako estatuek hartu duten bidea, inperialismora eraman duena. Beste bide batzuk baziren, hain zuzen ere Italiako hiri-errepubliketan hobeto inkarnatu direnak. Bitxia da, baina Florenziak artearentzat, zientziarentzat eta literaturarentzat gehiago produzitu du seguru asko Espainiar inperio guztiak baino.

Beraz kultura ernazentistan baudeuden beste posibilitate batzuk eta horiek ziren *small is beautiful* horretan biltzen ditudanak, hau da, edertasuna, askatasuna, komunitate humano txikian harreman modu demokratiko baino errealki demokratiko posible batzuk. Posibilitate hauek ez dira harrokeriarenak eta inor zapaltzearenak.

Horrela ulertu behar da esaten dudan Ernazimentura bueltatze hau, Ernazimentura joan baino, Ernazimentura orain irakurri, ez Europako estatuek edo monarkia harroek irakurri duten kategoria grekolatino inperial horietan baizik, eman dezagun Florenziak Paduak edo Ferrarak irakurri duten baita ere grekolatino baina estetikoetan. Ederra eta askatasuna eta horiek dira errekupeatu beharrezko elementuak guretzat.

Guk ez dugu errege bat harrotu edo handitu beharrik, frantsesek edo espainolek eduki duten bezala jainkoaren ordezkari. Zer nahi dugu, mundu indartsu bat denak dominatzen dituen hala nahi dugu mundu humano bat, merezi duena humanoki bizitzea? Gu ez gara jauntxoak, *infanzones de abarka* gara herri hone-tako semeak eta alabak.

L. Etorkizunean atzera begiratu.



«Gure planteamen-tuetan behintzat itzuli behar dugu beste herrie-kin batera Ernazimentuan, Europa modernoaren sorreran izan genituen posibilitate-tara, gure identitatea finkatzeko eta oinarritzeko posibilitate horietara».

Nola definitzen duzu Euskal Herri zahar hori?

J.A. Gure planteamentueta n behintzat itzuli behar dugu historikoki izan genituen, eta beste herrie-kin batera Eernazimentuan hain zuzen ere Europa modernoaren sorreran izan genituen, posibilitateetara. Beti irekita dauzkagun posibilitate batzuetara, alegia gure identitatea finkatzeko eta oinarritzeko posibilitate horietara.

Hain zuzen ere planteamentu hauetara itzuli beharko genuke, ez beste herrie-kin, Ernazimentutik hona egin duten bidean jarraitzeko, hori autoritarismoaren eta harrokeriaren bidea izan bait da, baizik eta bide propio bat guk egiteko; eztabaidatuz, baita geure posibilitate errealak aintzakotzat hartuz, herri txiki eta libre izateko bidean. Hau da, iragana ez dago itzultzerik, hori amets karlista bat edo izan zitekeen, edo holako integrista edo kontserbadore batzuen, baina iragana iragana da go eta bere handitasuna eta proble-

ma ere iragana izatean dago eta beraz gogoetagai izatean eta ez gehiago. Iragana ez da manipulatu eta ez da aprobetxatu ere egiten. Gogotarako bakarrik, elkarrizketarako elementu inportante bat izan beharko luke.

Zentzu honetan guk eta beste edozein herri bere iraganetik pentsatu behar du eta desairrolatu behar du bere gogoeta. Indibidualki ere, gure memoria gara, gure buruaren memoria, identitate bat bere memoria-rekin, edukinetan mamitzen dena. Herri baten identitatea osatzen duena bere edukinetan bere memoria historikoa da. Tradizioa eta kultura biziak izatekotan biak.

Desintegrazioaren elementua edo euskal konzientzi urratu edo galduaren arazoa da hain zuzen ere bere memoria historikoaren galera, historiko lege ulertuz ez bakarrik Nafarroako erregeak, baizik eta bere historia kultural guztia, politika ere bai, baina nagusiki kulturala. Etikoa, hitzaren adiera jatorrean ■